

**Tomás Ibañezen** hitzaldia

Visitants Konpainia – FAETEDA elkartearen zuzendaria

**“HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA KALEKO ARTEETAN; KREAZIORAKO,  
BANAKETARAKO ETA ERAKUSKETARAKO BEHARRAK”**

"Lehenengo eta behin, egun on denoi. Eta, jakina, jardunaldi hauen erakundea zoriondu nahi nuke, benetan puntu garrantzitsua delako gure lana garatzeko, eta etorkizunari eutsi ahal izateko, kale arteei dagokienez. Nik zinez zorionak eman nahi dizkiet antolatzaileei eta hau martxan jartzea posible egin dutenei.

Hainbat gairekin aspergarri samarra izango naiz, elkartegintzari buruz hitz egiten hasiko naiz. Denok dakizuenez, Espainia autonomia erkidegotan banatuta dago, eta autonomia erkidego bakoitzean antzerki enpresen elkarte bat dago, eta haietako gehienak Antzerkiko Ekoizpen Enpresen Federazio Nazionalak antolatzen ditu; alegia, *FAETEDAK*. Gai horretaz mintzatzen hasiko naiz, *FAETEDAK* 12 autonomia, 14 elkarte, 300etik gorako konpainia biltzen dituelako, eta 4.500 bat pertsonari lana ematen diolako. Federazioak duen tamainaz ideia bat izan dezazuen diot hori; izan ere, konpainien eta kale artista hutsen ordezkari oso txikia da; *FAETEDA*ren barruan, 15 konpainia daude ordezkaturik, aretoko eta kaleko ikuskizunak egiten dituztenak barne, kalekoak berariazkoak ez direnak. Hori dela-eta, hau ondoriozta dezakegu: *FAETEDA*ren zuzendaritza batzordean autonomia erkidego guztiak eta arazo desberdinak dituzten konpainia mota desberdinak daude ordezkaturik. Alegia, konpainia eta ekoizpen etxe handiak, konpainia txikiak eta haurrentzako antzerkia egiten dutenak daude ordezkaturik. Horrela sortu zen, eta horrela funtzionatzen du, jarduera guztiei aurre egiteko orduan oreka hautsi ez dadin. Arazoa zuzendaritza batzorde honetan kale arteetako ordezkari ez egotea da, eta horrek lehenengo arazoak ekartzen ditu gogora, estatuko gai orokorretan ez dugu gure interesak zuzendaritza batzordearen aurrean zuzenean defenda ditzakeen pertsonarik. Elkarte bitartez egin behar da; hori dela-eta, prozesua geldoagoa da, eta eragina txikiagoa du

*FAETEDA*n. Horrek ez du esan nahi alde batera uzten gaituztenik... *FAETEDA*k egiteko asko baititu; besteak beste, orain martxan dagoen bat, oso garrantzitsua, BEZaren murrizketa da... BEZa %16tik %7ra murriztu dadin lortzea. Jakin badakit dagoeneko kultura ministroarekin hainbat bilera izan direla, eta badakit elkarteak ekonomia ministroarekin biltzeko dagoela, gaiari beste maila batean aurre egiteko. Horrek esan nahi du lan hori motela dela, baina momenturen batean lortuko dugula espero dugu. *FAETEDA*rn beste jardueretako bat “*MercaArtes*” azokan duen inplikazioa da. Eta horrez gain, Kultura Ministerioarekin diru laguntzen gaia negoziatzeaz arduratzen da. Izugarri ukitzen gaituen gaia da hori, ez dugulako ministerioaren diru laguntza gehienetara jotzeko aukerarik, batik bat diru laguntzarik ederrenetara, ez dugulako antzerki nazionalen sarean lanik egiten, eta ez dugulako urtean 300 emanaldi egingo. Argi dago gure espezialitateetatik ez dugula denboraldia egiten, eta ez ditugula egun berean bi emanaldi ematen, eta horrelako gauza guztiak. Horrek esan nahi du, zentzu horretan, argi eta garbi desabantailan gaudela, bai aretoko arte eszenikoekiko, bai dantzarekiko. Bestalde, horrek beste behar bat jartzen du agerian: konpainiak federatu beharra, elkartuta egote aldera. Kalea egiten duten konpainia guztiak ez daude elkartuta; izatez, jende gutxi dago elkartuta eta presioa egin behar dugu, modu argi eta biribilez, lanbidearen berezko garapenaren onerako izango diren arrazoiengatik.

Hurrengo gaira joko dut; hau da, erkidego bakoitzeko diru laguntzen politikara. Arau orokor gisa, aginduetan, areto konpainien edo gainerako arte eszenikoen baldintza berberetan gaude... lehiatzen dugu. Kontua da, eta hau maila orokorrean gertatzen da, kale antzerkiak ez ezik arte eszeniko guztiek, diru laguntza onak izateko, laguntza interesgarria jasotzeko, urtean ekoizpen jakin bat egin behar dela. Halakorik izan ezean, eta birak soilik egiten badira, diru laguntza izugarri murriztuko da, argi eta garbi. Hori kontuan hartu behar den datu garrantzitsua da, geroago, merkatuez hitz egiten dugunean, zuzeneko ondorioa ikusiko dugulako: zuzeneko eragina du merkatuetan; izan ere, merkatuan gero eta eskaintza zabalagoa dago urtero. Diru laguntzen arazoak eta urtero ikuskizun bat garatzeko derrigortasunak arazo zehatzak sorrarazten ditu konpainien barruan arazo. Eraman behar dugun lan erritmoa frenetikoa da arazorik larriena: urtero, emanaldiak eginaz batera ekoizten jardun behar dugu, eta aldi berean, hurrengo ikuskizuna sortzeari ekin behar diogu berehalaxe. Hori dela-eta, konpainia profesionalen lan erritmoa benetan frenetikoa da, eta erabat kaltegarria, emaitza artistikoetarako, baita

artisten eta ekoizleen osasunerako ere. Gainera, merkatuari dagokionez, bistan denez, produktuaren saturazio arazo larria eragiten du horrek. Merkatua asetzen ari gara. Ez gara asko kalean antzezten dugunak, baina lan egiteko espazioak ere urriak dira; hau da, kaleko ohiko programazioa azoketan eta jaietan egiten da, eta gero, jaialdi eta azoka zehatzetan. Noizean behin, liburuaren astean, kultur astean, emakumearen egunean eta abarretan ere egiten dugu lan, oso programazio zehatzekin, askoz zabalagoa den aukera sorta baten barruan. Horrek hainbat ondorio ditu: itzelezko garrantzia du nolako lanak egingo ditugun erabakitzerakoan, zeren eta, begi bistan dago, atzo ihardun zen gai batez... non daude mezuak?... eta zergatik jotzen du kale antzerkiak gero eta umoretsuagoa, arinagoa izatera, mezu motelduagoez... bada, bistan denez, ondorio zuzena du gure ikuskizunak antzeztu behar ditugun lekuagatik, konpainia guztiek jakin badakigu inplikazio ikuskizunek, mezu garrantzitsu edo sendoez, edo umoretsuak ez diren ikuskizunek edo jaietan programatu ezin direnek, zentzu bikoitz hori ez dutenek... argi eta garbi, programazio espazioak nabarmen murriztuko dira eta horrek konpainiari beste ekoizpen bat egitea ekarriko dio azpiegiturak mantendu ahal izateko eta jaten eman ahal izateko berorretan lan egiten duten pertsoneri, zeren eta Piok ederki esan duen legez... hemen lan egin behar dugu, hots, sortzen ahalegindu ez ezik aldi berean horretaz bizi behar dugu eta fakturak, hipoteka eta horrelakoak ere ordaindu behar ditugu...

Guk ABETITetik lantzen ari garen egoeretako bat, asko kezkatzen gaituen arazoetako bat, hau da: autonomia erkidego guztietan daude zirkuituak, antzerki zirkuituak, antzerki zirkuituen programatzaileak, eta programatzaileek beren antzerkiak – beren antzerkiak soilik– programatzen dituzte. Eta hori, normalean, kale antzerkia jaietan soilik egiten den lekuetan gertatzen da. Nola eraso, nola egin aurre egoera horri, zirkuituei dagokionez? Guk ikerlan bat egin dugu, Valentziako zirkuituari berari buruzko txostenetan oinarrituta. Zirkuitu horretako zuzendaritza batzordearekin elkartu eta emaitzak azaldu dizkiogu, eta emaitza horiek argi eta garbi, erabat aldekoak ziren... egiten ez dugun lanaren aldekoak. Horrek esan nahi du... orduan, harrezkero. ondorio batzuk atera ziren, eta jakina, programatzaileek txipa aldatu behar zutela azpimarratu genuen, eta zirkuitu horiek, antzerki zirkuituak horiek, kaleko programazioetara ere zabaldu behar direla. Horretarako, jada, lehen ekimena egin da Vila-realeko jaialdian: zirkuituko programatzaileak joan ziren, Valentziako Generalitatek gonbidatuta. Eta orain, Alcoyko Azokaren ondoren, hain zuzen, jardunaldi batzuk egiten dira, eta programatzaile guztiak

joatera behartuta daude. Guk kaleko antzerkiari buruzko berriazko ponentzia batzuk egingo ditugu, Valentziako antzerki zirkuituko programatzaile guztiak publiko eskusibo izango ditugula. Helburua... programatzaileen txipa apur bat aldatzea, kale antzerkia programa dadin (azoketan eta jaietan, jaialdi eta azoka espezifikoetan), eta programazio normalizatua izatea, beste edozein antzerki konpainiek bezala, arte eszenikoetako beste edozein antzerki konpainiak bezala. Honekin hau esan nahi dut: zergatik ezin dugu herri bateko plaza batean lanik egin larunbat gau arrunt batean, jairik ezta jaialdirik ez badago ere? Egiten saiatu den guztietan ezin hobeki funtzionatu du, eta aretoan egiten diren programazioek baino hobeto. Oso garrantzitsua izango litzateke programazioaren normalizazioa lortzea, sorkuntzaren mesederako, eta artistei derrigorrez umoretsuak izan behar ez duten ikuskizunak sortzeko emango dizkigun aukeren mesederako. Horrez gain, beste lan ildo batzuk sortuko lirateke.

Nire ustez merkatuaren, proposamen artistikoen eta konpainien eboluzioaren artean dagoen harreman zuzena oso garrantzitsua da. Merkatu mailan, leku batzuetan oso finkatuta dagoen joera baten aurrean ere bagaude eta izan ere, programazioak...daude, programatzeko dirurik ez dagoenez, programatzeko dirurik ez dagoelako eta hori denok dakigu, baliabideak mugatuak dira; baina programazioak egin behar dira... beraz, kultura elkarteak kontratatzea jotzen da, eta horiek, benetan profesionalak bete beharko lituzketen espazioak betetzen dituzte, horrekin, dauden espazio apurrak daudela, merkaturak are gehiago saturatzen dihardugu. Eta garrantzizko intrusismoa dago, konpainia profesionalen kalterako, zerga betebeharrak zein gizarte betebeharrak dituztenak, kultur elkarte baten kontra, zergetariko asko ordaindu behar ez dituenak eta katxe horiek ahalik eta gehien murriztea espero dutena; Alacantetik Zamorara gehien etorritako pertsonen animazio ikuskizunen kasuak ere badaude, 2000 ogerleko balio dutenak. Bistan denez, kontuak eginda ere, kontuak ez dira inondik inora ateratzen. Beste alde batetik, ateratzen ari diren gazteek duten ezintasunaren ondorio ere bada eta modu argian gauzak egin nahi dituztenak profesional bihurtzeko. Gainera, jakin badakigu belaunaldi profesional tapoi bat egiten dihardugula, zeren eta profesional asko ateratzen ari dira, argi ikusten ez dutelako, enpresa bat eratzeko aukera ez izatean, ezta haien ikuskizunak antzezteko aukerarik ez izatean modu praktikoan funtzionatu ahal izateko eta etorkizun perspektibarik izateko, elkarteak egitera jotzen dutenak... apur bat "buztanari koska egiten dion arrainak". Alde batetik ez gaude gazteei sarbidea ahalbideratzen, eta

bestetik enpresa berriak sortzen dizkigute. Zentzu horretan, merkatuak ere badauka nahikoa harreman zuzena... beno merkatuari dagokionez esan beharra dago 1997ko baino garestiagoak ez diren katxeekin lan egiten dihardugula, batzuetan baita garai hartan kobratzen zena baino gutxiago. Denok nirekin bat ados egongo zarete bizitza maila asko igo dela eta ekoizpen kostuak igo egin direla, garraio kostuak eta abar ere igo direla, hortaz, zentzu horretan apur bat atzerantz goaz, konpainiak deskapitalizatzen eta modu horretan gara daitezen galaraziz, argi eta garbi, beste lan maila batzuetarantz. Eta azken urteotan modan jartzen ari dena, kontratazioetan nahikoa modan dago hiru hilabetetara ordaintzea, 4 hilabetetara, 5 hilabetetatik sei hilabetetara. Horrek konpainietarako ondorio katastrofikoak ditu, zeren eta demagun bi hilabetetan 15 bolo ditugula eta horietaz bakarrik bat kobratzen dugula, argi eta garbi azpiegitura mantendu beharko dugu, eta burutu ditugun funtzioez diru sarrerarik izateke eta, jakina, kobratuko ditugunak, baina epe luzera, antzeppen desberdinei aurre egin beharko diegu. Antzerki konpainiak oro har, eta kalekoak bereziki, ez daukagu sekulako enpresa azpiegitaririk, hobeto esanda ez daukagu; leku guztietan bezala, artistak produktore dira, gidariak dira, muntatzaile... denetarik dira. Hori dela eta arazoak... non geratu da boloaren egunean kobratzearena? Gure lana berriz planteatzera behartzen gaitu, baita gure ekoizpenak berriz planteatzera ere, ez dugulako beroriei aurre egiteko diru baliabiderik. Beste alde batetik ere, merkatuarekin lotuta, ideia merkatu harremana...nola lotzen dugun ideia artistikoa merkatuarekin. Sistema batean gaude, eta horretan, merkatura ateratzen garenean gure produktuek errendimendu betean egon behar dute eta bete-betean erabiltzeko moduan, hots, ikuskizunak funtzionatzen du. Ez daukagu ikerketarako programazio espaziorik, eta hor amaieran emaitza produktua berez ez dela garrantzitsua sumatu zen, baizik eta adierazten ari den ideia dela garrantzizkoa, horrekin horretara garamatza, benetan, edo norantz eramaten gaituen... haiek eztabaidatzen egon ziren kontuetara. Burutu diren gauzez atzerantz egiten edo retro elikatzen ari gara, ez direlako proposamen berriak agertzen, ez direlako proposamen ausartak egiten; izan ere, ezinda proposamen ausartik egin, ikuskizun bat edo bi jarraituan huts egiten baduzu desagertu egiten zara, ikuskizun batean huts egiten baduzu, jai daukazu, huts egite hori nola konpondu pentsatu behar baituzu. Ikertu beharra badaukazu eta proposamen berria egin dezazun espero bada, nor aurkeztu duzu? Kanean bereziki, publikoarekin lan egin behar baitugu eta neurri batean aurpegiatzen zaigu ez dugula hiriguneekin, lan egin dezakegun maila guztietara, lanik egiten. Eskatzen bazaigu edo aurpegiatzen bazaigu hiri eremu guztiarekin lan egin

dezagun, eta gertatzen da ezin ditugula ikuskizun horiek entseatu; noski, ikuskizun horiek lantzea publikoaren mugimendu estrategia batzuk izatea esan nahi duelako, etab, etab. Horretan guztian normalean kaleko konpainiak dira...entsegu teorikoak dira, ikuskizun bat baduzu publikoarekin harreman zuzena duena, entseguetan irudikatu beharko duzu zein den publikoa, ezin duzu egunero ekoizpena publikoarekin egin edo entseatuko duzun plazan... entseguetarako espazioa ere badago. Hortaz, merkatura aterako zara hainbat antzezpenetan, lehenengo bostak gutxienez, doikuntzakoak izango direnak, zuk planteatu zenuen teoriko hura guztiak benetan funtzionatzen duen ikusteko eta ez badu funtzionatzen, hura berriro egokitzea; hortaz, merkatuak jada ez du onartzen, ikuskizunak egon eta funtzionatu behar duela... ulertzen duzue esan nahi dizuedana, ezta? Tira! gauza izorrratu samar dagoela, lehen emanaldiaren egunean atera, dena zoragarri izan eta dena primeran funtzionatzeko moduan; Beste gauza bat da, dena delakoagatik ondo eginda ez dagoelako, proposamenak ez funtzionatzea. Horiek dira beste gai batzuk. Beraz, zentzu horretan, nik uste dut espazioak lortu beharko liratekeela, hain zuzen, azoken eta jaialdien leku edo formatu zehatzetan, eta horietan, garrantzizkoa ideia izan dadin eta ez azken produktua. Bertan, garatu, ikertu eta proposatu ahal dezagun, eta ausart gaitzen, produktuak komertzialki funtzionatzen ez duelako konpainiarentzat kalterik ekarri gabe. Eta ondoren, ideia daukagunean eta ekoizteari ekiten diogunean, aktoreengan pentsatzen hasten gara, lanean izango ditugun aktoreengan. Eta beti bezala, muturren aurrean betikoarekin topo egiten dugu, prestakuntza. Prestakuntza bataila zaldia handia da, etorkizun askoz interesgarriagoa izan dezagun eragin handia izan behar dugu arte eszenikoen artisten prestakuntza eskolek haien ikasgai gaietan kalea sar dezaten. Gaizki dagoen kontu bat da, gehiegikeriak gainditzen duena. Zortea dutenek eta lauzpabost urteko karrerak egiten dituztenek, bost urte horietako egunen batean kale antzerkiaz hitz egingo dute. Eta zentzu horretan ekintzak burutzen ari dira, Valentziako Erkidegoan ekintzak burutzen dihardugu, estatuan gainerakoan ere badihardutelakoan nago, alde batetik partikular mailan... konpainiak irakasle bihurtzen garelako, aktore bat hartzen duzunean kalean nola antzezten den irakatsi behar diozu eta. Eta beste alde batetik, kurtsoak, ikastaroak eta monografikoak egiten dira, normalean pribatu edo partikular mailan, atzean ahalegina egin behar duten konpainiekin, sortzeaz gain, beren ikuskizunetan geroago lan egingo duten aktore posibleak izan ahal izateko eta azkenik arte dramatikoak jasan duen aldaketa aprobetxatuz... kultura kontseilaritzan menpe egotetik, bigarren mailako ikasketak zirelako eta oraindik ez zirelako unibertsitatekoak;

hori dela eta ikasketa plan guztiak aldatzen dira eta orain Unibertsitate eta enpresa sailaren menpe egongo dira. Beraz, hor ere badugu eztabaidagai garrantzitsua, eta horregatik gu dagoeneko hezkuntza arduradunekin lan eginez ari gara, ikasketa plan berrietan kale arteak maila desberdinetan sar ditzaten, eta presentzia garrantzitsua izan dezaten. Hori guztia burutzen ari diren kontuak dira, baina poliki-poliki joango direnak eta emaitzak ere momentu bakoitzean hartuko diren erabaki politikoaren arabekoak izango dira. Zentzu horretan hasierako elkartegintzaren ildoan, eta merkatu baita enpresekin jarrita ere, adibidez, elkartetik, ABETITetik lan egiten dihardugu hezkuntza eta antzerki enpresen artean lotura zuzena egon dadin. Prestatzen diharduten artistek edo unibertsitateara prestatzera joango direnek, enpresekin eta unibertsitatearekin harreman zuzena izan dezaten, maila guztietan sortu eta aurrera egin ahal izateko moduan, bai kale mailan, bai dantza mailan, bai areto mailan, bai zirkua mailan; izan ere, lan egiten ari baita zirkua ere unibertsitate ikasketa mailan ikas dadin. Uste dugu, arte dramatikoan edo arte eszenikoetan lizentziatuak arte eszenikoak direnaren panorama orokorra izan behar dutela, ondoren, bere espezializazioak izan ditzan eta espezializatzeko aukera izan dezan. Eta Unibertsitateari, enpresei eta subentzioei dagokienez; Valentziako Erkidegoak planteatzen dihardu kulturako subentzioetatik deskargatzea, subentzio horietako aurrekontuen zati handi bat deskargatzea, konpainien enpresa azpiegiturretara doazenak, subentzioetatik deskargatzea enpresa sailak enpresentzako dirua eman dezan, azpiegituren mantentzerako eta konpainien enpresa garapenerako. Eta beste alde batetik, kultura sailak bakarrik produktu artistikoak landu eta konponduko ditu, hau da, proiektuak. Lerro horietan lan egiten hasia da eta hurrengo agintaldian fruituak eman ditzan espero da. Aurrekoaz zegoeneko mintzatzen zen zerbait zen eta han berberak irabazi dutenez egongo direnak berberak izango dira, bada, jakina, suposatzen da lan lerro horiek, hauteskundearen aurretik mintzatu direnez, hauteskundearen ostean jarraitzen dutela.

Azkenik, eta amaitzeko zuzenean, espazio fisikoekin dugun lotura eta burutzen ari den urbanismoak gudan duen eraginak aipatu nahi ditut, atzo Donaldekin ederki asko esan zuen moduan, zirkuan eragina du baina kaleko arte eszenikoetan ere bai... baita, oinezko hiritarrarengan ere. Ez dakit herrialde osoan orokorra den ala ez, nire eskualdean behintzat plaza asko eraikitzen ari dira, espazio asko birmoldatzen ari dira, izan ere, plazak egiten dizkigute, baina gero ikusten dituzu eta konturatzen zara ez dutela ezertarako balio, ezin dela ezer egin, ezer ere ez.. Zergatik dago jarlekuz, tramankuluz,

loreontziz... beteta? Ez baitira lorategiak, espazioa txiki-txikia baita, ez baitu ibilgailuentzako sarbiderik, ez baititu 200 pertsona baino gehiago biltzen, suposatzen dut, 200 pertsona biltzea arriskutsua delako... gizarte edo politika mailan, baina ederra da daukagun gaia eta uste dut gu gauden tokitik, eskaini ahal dugun influentzia apurragatik, foro guztietan salatu behar dugula urbanismoan ez daudela batere ondo egiten eta ez duela ezertarako balio. Eta horrekin bada, amaitutzat emango dut nire azalpena. Eskerrik asko.